

K O S T U E G I T U R A K

KOSTUAK	MOTA	DESKRIBAPENA	HILEAN	URTEAN
Alokairua	Kostu Finkoa	85 m ²	500€	6.000€
Soldatak	Kostu Finkoa*	Garazi Raymond Irene Udane Iker (informatikoa)	1.500€ 1.500€ 1.500€ 1.500€ 1.500€	105.000€
Telefono finkoa	Kostu Finkoa	Euskaltel 944 028 811	20€	240€
Materialak	Kostu Finkoa	Iraupen luzeko materialak (pankartak, mahiak)	Pankarta: 3€ X 50 Mahiak: 38€ X 15	720€
Azoka	Kostu Aldakorra	Azoka egiteko lekuak	70€—100€	840€—1200€ (1.020€)
Publizitatea	Kostu Aldakorra	Triptikoak, kartelak eta sare sozialetako kanpainak	50€—75€	600€—900€ (750€)
Bidalketa-gastuak	Kostu Aldakorra	Materialen bidalketa eta azoketarako garraioa	80€—110€	960€—1320€ (1.140€)
Guztira			8.937,5€	114.870€

* Aipatu beharra daukagu soldatei dagokionez ez dugula inork soldata finkorik izango. Izan ere, gure **soldata** jendeak erosten duen kantitateko **araberakoa** dela. Hau da, hilean azoketan jendeak arropa gehiago erosten badu eta publizitateari dagokionez gehiago lortzen badugu, diru gehiago irabaziko genuke hile horretan. Baina **kostu finko minimo** bat ezarri dugu, hau da, hilean bakoitzak 1500 euro irabaziko ditu, eta lortzen ditugun bestelako irabaziak gure artean banatuko genituzke. Gainera, urtero bakoitzak soldata bikoitza lortzen du, hau da, 12 aldiz kobratu beharrean, **14 aldiz kobratzen** da urtero. Beraz, 2 soldata horiekin lortzen duguna, **enpresan inbertitzeko** erabiliko dugu, hau da, diru hori enpresarentzat izango litzateke, ez guretzat. Haatik, denbora joan ahala enpresaren ekonomia hobetzen bada eta gora badoa soldata extra hori guretzat izango litzateke.

Alokairuari dagokionez, [Murueta Torre Auzunea Etxetaldea, 9](#)an dagoen lokalean gure bulegoa baita biltegia ezarriko dugu. Lokal horrengatik **urtean 6.000€** ordainduko ditugu; eta bulegoan **telefono finko** bat izango genuke bertatik bezeroen zalantzak argitzeko eta bestelako administrazio kontuekin aritzeko. Telefono horretarako, Euskaltel erabiliko dugu telefono finko bezala eta 20€ dira hilean, hau da, **240€ urtean**.

Gure enpresan **iraupen luzeko materialak** erabiliko ditugu azoketarako, hala nola, mahaiak eta pankartak, kostu finkoak adierazten dutenak. Zehazki, pankartak 3 euroko unitateko prezioan erosiko dira, 50 unitate guztira, 150 euroko gastua suposatzen duena. Halaber, 15 mahai erosiko dira 38 euroko kostu unitarioan, hau da, 570 euros. Guztira, 720 euro gastatzen dira materialean, eta horiek funtzesko elementuak izango dira gure jardueretarako, erabilera luzea eta funtzionaltasuna bermatuz.

Kostu aldakorrei dagokienez, **azoketan 840€-1.200€** bitartean inbertituko dugu urtean, hori azoketako lekua hartzeko ordaindu beharrekoa da. **Publizitatean berriz, 600€-900€** artean, gastu hauek, telebistan eta sare sozialetan anuntzioak egiteko erabiliko ditugu, baita azoketetako pankartetan, triptikoetan eta karteletan. Azkenik, **bidalketa-gastuetan 960€-1320€** inguru izango dira, diru hori materialen bidalketetan eta azoketarako garraioetan erabiliko da.

Guzti honekin ondoriozta **daiteke urtean gutxi gora behera 114.870€** inguruko gastua izango dugula enpresan.